

AURKEZPENA

Lanbide Heziketako Kalitaterako eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziak **TXUKUN 5S PROGRAMA. BIDETZAILEAREN GIDALIBURUA** euskerazko bertsioan argitaratu du.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako ikastetxeek bide luzea eta zabala dute ibilia kalitate-eredu bat ezartzeko ahaleginean. Kalitate eredu hori arrakasta handia izaten ari da gainera, Lanbide Heziketako zentru askok kalitate maila handia lortu baitute. Alabaina, kalitatearen eta etengabeko hobekuntzaren bideak etengabeko ahalegina egitea eskatzen du. Hau dela eta, azken urteetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako zentru askok, beren kudeaketa etengabe hobetzeko ahaleginean, **Txukun 5S Programa** ezarri izan dute bulegoetan, ikasgeletan, lantegietan, langeletan, eta sailetan, batera erabiltzekoak diren lekuak eta materialeak behar bezala antolatzeko, txukun eta garbi izateko, eta, aldi berean, disziplinaren eta ohituraren bidez, talde lana bultzatzeko xedearekin.

Lanbide Heziketako Kalitaterako eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentzia **Txukun 5S Programa** ezartzeko ekintza zabal bat aurrera eramaten eta koordinatzen aritu da Lanbide Heziketako ikastetxeetan, arrakasta handiarekin gainera. 2002. urtean 35 proiektu burutu ziren 24 ikastetxetan, 2003.enean 50 proiektu 34 zentrotan eta, gaur egun, 130 proiektu ari dira egiten 40 ikastetxetan.

Programa honen emaitzak bikainak izan direla, eta gero eta ikastetxe gehiagok nahi duela programan parte hartu jakinaz, Agentziak **TXUKUN 5S PROGRAMA. BIDETZAILEAREN GIDALIBURUA** dokumentua argitaratzea erabaki du. Honekin batera ezarpen autonomoa burutzeko materialeak ere aurkezten dira.

Ziur gaude gidaliburu hau tresna erabilgarria eta praktikoa izango dela, eta Lanbide Heziketako ikastetxei eta ikastetxe horietako lan taldeei onura handia ekarriko diela.

LIBURU HAU ESKURATU AHAL IZATEKO ZUZENDU ZAITEZKE

**LANBIDE HEZIKETAKO KALITATERAKO ETA GAITASUNA
EBALUATZEKO EUSKAL AGENTZIA**

Tel. (34) 945 148460

Fax. (34) 945 155455

e-mail: agencia@agcalidadfp.com

Halaber, eskatzeko orria bete dezakezu www.euskadi.net/agencia/solici_e.htm